

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0120</p>	<p>Familia ugariaren titulua</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Familia ugariaren titulu eskaria da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako txartel bat edukitzeko eskubidea ematen du. Bost urtetik gorako familiako kide guztiek txartela postaz jasoko dute, eta tituluaren ordezkari erabili ahal izango da Euskadin. Tituluari berari lotetsitako egiaztapeneko agiria da, eta helburua, Familia Ugarietzako dauden abantailen erabilera erraztea da.

NORK ESKA DEZAKE?

Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten guraso batek edo bik osatutako familiak, seme-alaba horiek bienak izan ala ez, edo bi seme-alaba dituztenak, horietako batek, gutxienez, urritasuna duen pertsona izaera aitortuta badu.

Halaber, bi seme-alaba dituztenak, gurasoek urritasuna dutenean edo horietako batek, gutxienez, %65eko edo hortik gorako urritasun maila duenean.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E028 Familia ugariei babesa](#)
- [E111 Dokumentu zerrenda familia ugariaren titulua eskatzeko](#)

Familia liburua eta hori daukaten familiako kide guztien Nortasun Agiri Nazionala.

Egoera bereziak egiaztatze beharrezkoak diren ziurtagiriak.

Errolda ziurtagiria

Banaketa edo dibortzioa egonez gero, Hitzarmen Erregulatuak, hala denean, eta dagokion epaia, seme-alaben zaintza egiaztatu ahal izateko.

Beste nazionalitate batzuk dituzten eskatzaileentzat:

Aipatutako guztiaz gain, Europar Batasuneko eta Europako Espazioari buruzko Akordioak (Islandia, Norvegia eta Liechtenstein) kide diren herrialdeetakoak badira, bizileku txartela.

Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak badira:

- Bizitzeko baimena
- Atzerritarren Identifikazio Zenbakia

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Orduetgia: 7:30 - 15:00

Posta arrunta:

- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1
Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [40/2003 Legea, azaroaren 18koa, Familia Ugariak Babesteari buruzkoa](#)
- [1621/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, familia ugariak babesteari buruzko Arautegia onartzen duena](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu
2. Erregistratu eta interesatuari eman
3. Espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidali, ebazpenerako.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK